

Merezi izan du

Hona hemen Padrón kidearen hitzak: “Ezer ez da aldatzen, inoiz ez da ezer aldatu”. Umeek ere hala nahi dute pentsatu: ziurtasunak nahi dituzte, istorio berdintsuak beti, istorio errepikatuak, detaile ñimiñoetan ere aldaketarik pairatuko ez dituztenak. Ezer aldatuko ez denaren ilusioa behar dugulako aurrera egiteko. Bermeren bat, txikia bada ere, ipuin bat bezain txikia. Seguritate hesiren bat. Itze goriren bat. Ezer ez da aldatzen... seguru?

Nagusitan, ez dugu hain desberdin jokatzeko. Nagusitan, geure joera bitxi horri ez diogu “ez ziurtasunez beteriko munduari beldurra” deitzen, baizik eta “neofobia”, dotoreagoa gelditzen da eta. Gauza berri beldurra. Ez pentsa, neofobia abantailez beterik suertatutako fobia da, ebolutiboki onuragarria benetan, neofobiak kobazuloan babestuta mantendu baitzuen gizaki primitiboa, kanpoaldean imajinatu ezin daitezkeen arriskuak mamitzen ziren bitartean. Baina seguru asko kobazulo horretan jarraituko genuke kontrajartzen zaion beste bulkada horregatik ez balitz, alegia, neofiliatik ez balitz. Berriarekiko zaletasuna. Neofiliak bultzatuta, berrikuntzaren bila jotzen dugu, eta agian neofilia da Padrón hain ilun jartzen duena, geure bizimodua “zepoan harrapatutako saguen” bizimoduarekin konparatzea eramaten duena, gauzak ez baitira berak nahiko lukeen bezain azkar aldatzen, edo berak nahiko lukeen bezain sakonki.

Nik ez dut hala uste. Eta egia balitz ere ez dela deus berririk eguzkipean, kontu zaharrak hain dira ugariak, bizitza batek irauten dituen urtetxo horietan behintzat entretenimendua ziurtatuta daukagula. Formatu aldetik behintzat



INIGO AZKONA

Katixa Agirre

Urkiza

Padrón

ez gara geldi egoten: agoratik twitter-era, esklabotzatik hipotekara. Eta zer nahi duzue esatea, nik formatu berriak nahiago: emakumeek agorarako sarrera galarazita zeukaten eta hipoteka, azken finean, borondatez sinatzen den esklabotza burgestxikia baino ez da.

Baina esanda dut hemen izatez baikorra naizela, eta gauza batzuk inbidiatzen nizkiela estatu-batuarrei (beren alegrantzia horretaz ere idatzi nuen). Konturatu naiz, hala ere, salbuespena naizela txalaparta-gune honetan. Nire kideek, gehiago edo gutxiago, beti jo izan dute zaurira, bizitzaren alde ospelera... Akaso hori da artikulugilearen lana, ez dakit. Neure kontratuan ez zioen horrelakorik behintzat.

Eta orain neure kideengana joan zait gogoia, eta konturatu naiz ia dozena erdi bat izan ditudala lagun esparru honetan: Ur, Juanjo, Eider, Ana, José Luis... Aurpegiak joan, aurpegiak etorri, nirea ez ote dabil gehiegi errepikatzen hasita? Ez al litzateke hobe José Luisen hitzak gezurtzea eta gauza batzuk, noizean behin, aldatzen direla erakustea? Urte berria dator gainera, eta diskrezio handiz egin daitezke horrelako gauzak garai honetan. Sar dadila urtarreleko haize freskoa, beraz. Har ditzala makilak beste norbaitek.

Bertsolari baten moduan agurtu nahiko nuke. Txapela buruan eta zuek guztiak hunkituz. Baina jainkoak ez nau hautatu taula gaineko lanerako, beraz, burua biluzik eta begiak lehor

egiten dizuet agur, errima eta neurriari muzin eginez: ez da beti plazera izan, estu eta larri ibili naiz zenbaitetan, lerro hauek entregatzeko epea bete ezinda. Eskerrak beraz, pazientzia eduki duen horri. Ez da beti plazera izan baina merezi izan du. ■

« Agoratik twitter-era, esklabotzatik hipotekara. Eta zer nahi duzue esatea, nik formatu berriak nahiago: emakumeek agorarako sarrera galarazita zeukaten eta hipoteka, azken finean, borondatez sinatzen den esklabotza burgestxikia baino ez da »